AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4248

245/2012 EBAZPENA, uztailaren 15ekoa, Bilbo Osasun Eskualdeko zuzendari gerentearena. Honen bidez baliogabetu egiten da M.ª Luz Seco Rodríguez andreak Bizkaiko Osasun Barrutiko Bilbo Eskualdeko Etxaniz Suhiltzailearen osasun zentroko unitate-buru gisa jasoa zuen eginkizun-esleipena.

Osakidetzako Bilbo Eskualdeko gerentearen martxoaren 1eko 35/2005 Ebazpenaren bidez, M.ª Luz Seco Rodríguez andreari Etxaniz Suhiltzailearen Lehen Mailako Atentzioko unitate-buruaren eginkizunak esleitu zitzaizkion Bizkaiko Osasun Barrutian, Bilbo Eskualdean.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplika daitezkeen gainerako xedapenak aztertu eta gero, Zuzendaritza Gerentzia honek hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Berak eskatuta, M.ª Luz Seco Rodríguez andreak Bizkaiko Osasun Barrutiko Bilbo Eskualdeko Etxaniz Suhiltzailearen Lehen Mailako Atentzioko unitate-buru gisa jasoa zuen eginkizun-esleipena baliogabetzea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2012ko uztailaren 15etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzari ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Bosgarrena.– Deialdiaren 8. oinarrian xedatutakoari atxikiz, ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbo, 2012ko uztailaren 15a.

Bilbo Eskualdeko zuzendari gerentea,
JESÚS M.ª LARRAÑAGA GARITANO.